



*Haur eta Gazte
Literaturako
katalogoa*



begiko
SANTILLANA



begiko

SANTILLANA
ZUBIA

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Irakurle hasiberrientzako Literatura	9
SAIL BERDEA	9
Haur Literatura	15
SAIL HORIA	15
SAIL MOREA	19
SAIL LARANJA	25
Haur eta Gazte Literatura	31
SAIL URDINA	31
Gazte Literatura	37
Bidaia literarioak	43
Webgunea eta sare sozialak	47
Gaiak eta balioak	49



begiko gaituzue

Duela 30 urte baino gehiago, Zubia-Santillana argitaletxea Haur eta Gazte literatura eskoletara eramaten hasi zen. Horretara, gure bizitzaren parte izatera iritsi diren liburuak eta pertsonaiak ezagutzeko aukera eman zigun. Harrezkero, liburu asko argitaratu dira eta irakurri ahal izan ditugu. Liburu horiei esker, bai eta sektoreko profesionalen arteko elkarlanari esker ere, milaka haur eta gaztek beren lehen irakurketa esperientziak eta abentura zoragarriak bizi ahal izan dituzte.

Oinarri sendo horren gainean eraiki da **Begiko**. Zubia-Santillanaren Haur eta Gazte Literaturako zigilu berria. Literaturaren kalitatea, konpromisoa, inklusioa, gozamina, hausnarketa, sormena eta alegiazko unibertsoak birsortzearen alde apostu egiten duen proiektua da, mundu mailakoa.

Literatura-ibilbide garrantzitsu bat oinordean hartu, eta aldi berean, erronka berriei aurre egiten dien proiektu itxaropentsu bati ekiten diogu. Etaba honetan, historian geldituko diren gertakariak biziko ditugu, eta kasu askotan, kontakizun handien inspirazio-iturri izango dira; narratiba, euskarri eta irakurgaiarekin eta irakurleekin harremanak egiteko modu berriei esker, beti bezala eta inoiz ez bezala kontatuko diren kontakizunak. Horiek guztiek lekua izango dute gure katalogoan; hain zuzen ere, ospe handiko autore eta ilustratzaileez gain, haur- eta gazte-literaturaren alorreko talentu berriek ere izango baitute lekua.

Zatozte bilduma honetan barrena bidaiatzera, gaurko eta biharko irakurleei zuzendutako lanak, generoak eta gaiak eskaintzen baititu. Bertan, bilatzen duten liburua, nahi dutena, haientzat berariaz idatzia izan dena aurkituko dute haur, gazte, irakasle zein familiek, horixe da eta gure nahia.

Ongi etorri **begikora!**


JOSEBA SANTXO eta MAITE MALAGÓN
Begiko sailaren argitalpen-zuzendariak




Jon Arretxe




Ayesha L. Rubio



Michael Ende



Roald Dahl



Jsone osoro




Igor Elortza



Toti Martínez de Lezea



Jordi Sierra i Fabra



Begiko zigiluan Haur eta Gazte Literaturako **betiko lanak** topatuko ditugu, baina baita **proposamen berri eta berrizaleak** ere.

Autore unibertsalak euskaraz, **liburu eta pertsonaia ahaztezinak, euskal idazle bikainak, irudigile apartak...** bada irakurriz non gozatu bilduma berri honetan. Edozein irakurleren begiko eskaintza osatu dugu. Begiko zaituztegunako. **Begiko gaituzuelako.**

S. E. Hinton



Leire Bilbao







Irakurle hasiberrientzako Literatura

Trebatzen hasi den irakurlea

Irakurtzen hasi aurretik, trebatzen hasi den irakurlea letrak eta errepikatzen diren zenbait hitz identifikatzen hasten da. Haurrak irudien ikusizko pistak lortzea eta inferentziak egitea edo zer gertatuko den aurreikustea da gauzarik garrantzitsuenak. Hori funtsezkoa da haren irakurle-trebakuntzan; izan ere, historia, kronologia eta egitura kontzeptuak landuko ditu, eta horri esker, elementu horiek testu idatzian ikusi ahal izango ditu irakurtzen hasten denean.

Liburuak

Adin-tarte honetako haurrei zuzendutako liburuak kolorez, onomatopeiaz, jolasez eta hitz-segidaz osatuta daude, eta irudiek protagonismo handia izan ohi dute. Haurrak, bere kasa nahiz lagunduta, irakurketa-esperientzia sinestezina bizi dezan daude pentsatuta sail honetako liburuak.

B



Irudigilea: Ayesha L. Rubio


ISBN: 978-84-16839-37-7

Orrialde kopurua: 48

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Laguntasuna, elkarbizitza, bakea

B Berria



Pello eta otsoa

Egokitzapena eta irudiak:
Ayesha L. Rubio

Egun batean, goizean goizik, Pello bere etxearen aurreko zelaira irten zen. Hantxe ikusi zituen Ahatea, Txoria, Katua... bai eta Otso gris ikaragarri bat ere! Pellok aurre egin zion Otsoari. Baina zer gertatu zen gero?

Irudi ederrez apaindutako ipuin hau adiskidetasunaren eta begirunearen aldeko kantua da.

ARTE BEGIKO SAILA

B**Jainkosa izan nahi zuen hirukia****Violeta Monreal**

Malevich margolariaren hirukiak jainkosa izan nahi du, mundua babesteko. Horretarako, baina, beste margolan batzuetara jo beharko du laguntza eske. Lortuko ote du mundua babesteko jainkosa bihurtzea?

Irudigilea: Violeta Monreal**ISBN:** 978-84-16839-44-5**Orrialde kopurua:** 32**Generoa:** Kontakizuna**Gaia:** Fantasia, arte-hezkuntza, abentura**B** Berria**B****Tartalo izan nahi zuen laukia****Violeta Monreal**

Mondrian margolariaren artelan batean Tartalo izan nahi duen lauki gorri bat dago. Eta lauki horrek bere onena emango du amets hori lortzeko.


Irudigilea: Violeta Monreal**ISBN:** 978-84-16839-32-2**Orrialde kopurua:** 32**Generoa:** Kontakizuna**Gaia:** Fantasia, arte-hezkuntza, mitologia**B** Berria**B****Pirata izan nahi zuen orbana****Violeta Monreal**

Paul Klee margolariaren artelaneko orbanak pirata izan nahi du, gurarien zuhaitzaraino iristeko, eta hari zerbait garrantzitsua eskatzeko. Lortuko ote du bere ametsa betetzea?

Irudigilea: Violeta Monreal**ISBN:** 978-84-16839-28-5**Orrialde kopurua:** 32**Generoa:** Kontakizuna**Gaia:** Fantasia, arte-hezkuntza, adiskidetasuna**B** Berria

HITZEZ HARAGO SAILA

B



Umi

Sebastián de la Serna

Umi haur ausarta da eta era magikoan idoroko du bere inguruan dagoen mundu zoragarria. Abentura honetan bizitzako gauzarik garrantzitsuenak aurkitzen ikasiko du.

Irudigilea: Sebastián de la Serna

ISBN: 978-84-16839-40-7

Orrialde kopurua: 64

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Abentura, fantasia, maitasuna

B Berria



HITZEZ HARAGO saileko liburuak irakurtzeko ez ezik, ikusteko, ikasteko, jolasteko eta bizitzaren muinaz jabetzeko dira

HIZKI LARRIAK

B



Ipuin hautatuak aldrebes kontatuak!

Gianni Rodari

Bazen behinola otso gixagaixo bat, amonari eramaten ziona jateko ugari eta ona. Baina basoa zeharkatzean, Txanogorri beldurgarria agertu zen bat-batean...

Hortik aurrerakoa, zeuk asmatu beharrekoa!

Egin dezagun bidaia Gianni Rodariren fantasiatzko mundura, han ipuinak ere aldrebes kontatzen baitira

Irudigilea: Nicoletta Costa

ISBN: 978-84-16839-36-0

Orrialde kopurua: 32

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Fantasia, elkarbizitza, garapen pertsonala

Letra mota: Hizki larria

B Berria

B



Eurigilea

Gianni Rodari

Ezagutzen al duzu eurigilea? Arin-arina da eta hodeietan bizi da. Jauzika ibiltzen da hodei batetik bestera, txorrotak irekitzen eta ixten...

Liburu eder honek aitzakia polita emango die haur-helduei uraren garrantziaz eta erabilera arduratsuaz elkarrekin hitz egiteko.

Irudigilea: Nicoletta Costa

ISBN: 978-84-16839-39-1

Orrialde kopurua: 32

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Ekologia, elkartasuna, fantasia

Letra mota: Hizki lotua

B Berria

HIZKI LARRIAK saileko liburuetan testu guztiak hizki larriz idatzi ditugu irakurketa samurtzeko.





SAIL HORIA

[+6]

Haur Literatura

Jolasean dabilen irakurlea


Adin honetako haurra jolasean dabilen ikuslea da, irakurlea baino gehiago. Irakurgai duen alegiazko munduan hartzen du parte, eta han, bere unibertsoko erronkekin egiten du topo. Beldurrei, nahiei eta pozei egin behar die aurre, baina segurtasun-distantzia bat duela; hala, beldur, nahi eta poz horiei beha diezaieke, haiek gobernatzen ikasten duen bitartean, egunerokoan jolasten denean egiten duen bezala.

Jolasean dabilen irakurleak badaki istorioak nola dau-den antolatuta, eta pixkanaka beste alderdi batzuk landuko ditu, hala nola hitz-jarioa, ulermena eta kora-piloa bere buruan ikusarazteko aukera.

Liburuak

Ziur asko, irakurlea irakurmena hobetzen ariko da oraindik –irakurmena, deskodetze-prozesu bat den aldetik–. Hori dela eta, liburu laburrak, arinak, dibertigarriak eta zentzuz beteak behar ditu, lehen irakurgaien eta etorkizuneko irakurgaien artean zubi-lana egingo dutenak. Liburu horiek irudi asko dituzte testuaren lagungarri. Esaldien egitura sinplea da, eta paragrafoak laburrak izan ohi dira.

B



Leiho bat eta leiho bi

Leire Bilbao

Maialen etxebizitza txiki batean bizi da bere amarekin eta arropak esekitzea abentura itzela iruditzen zaio. Izan ere, bere bihotzeko begiekin ikusten ditu auzokideak eta haien bizimodua. Maialenek bizitzaren alderik ederrena ikus dezake leihora ateratzen den bakoitzean.

Ongi etorri Maialenen mundu txiki bezain handira!

Irudigilea: Alex F

ISBN: 978-84-16839-50-6

Orrialde kopurua: 48

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Adiskidetasuna, begirunea, elkarbizitza, erantzukizuna, familia

B Berria



B



Liburuzaina eta gaizkileak

Margaret Mahy

Gaizkile talde basati batek Selene Laburnum liburuzaina bahitu du. Gaizkileek dirutza izugarria eskatu nahi diote Alkateari liburuzainaren truke. Baina, euren plana burutzerakoan ez dute aurreikusi liburuzainaren xarma eta abilezia, eta hare gutxiago elgorri beldurgarria!

Ezohiko bahiketa eta ezorduko elgorria kontakizun ero honen protagonistak!

Irudigilea: Quentin Blake

ISBN: 978-84-16839-41-4


Orrialde kopurua: 48

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Abentura, adiskidetasuna, elkarbizitza, maitasuna, garapen pertsonala

B Berria

B



Kutxa bete dinosauro

Ana Rosetti

Trastelekuan kutxa bat dago, ezertarako balio ez duten gauzez beteta. Baina, Maia, Lier, Telmo, Gorka eta Jurdan Eskulan neska-mutiko ausartek irudimena erabiliko dute, traste zahar horiek tresna zoragarri bihurtu eta abentura zirraragarriak bizitzeko.

Ireki kutxaren estalkia eta bidaiatu Historiaurreko haitzuloen garairaino...

Irudigilea: Alfonso Gómez


ISBN: 978-84-16839-15-5

Orrialde kopurua: 64

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Abentura, begirunea, adiskidetasuna, fantasia eta ohitura osasungarriak

B Berria



Haur Literatura

Irakurlea protagonista

Adin honetako irakurleak bere burua gatazkak beti modu burutsuan konpontzen dituzten pertsonaia ausart, trebe eta buruaskietan islatuta ikusteko beharra du. Istorioak mundu erreala baino antolatuagoa eta hura bezain anbigua eta arriskutsua ez den mundu batean gertatzen dira, eta horrek sarri aukera ematen die pertsonaiei ihesaldiak eta abenturak bizitzeko.

Adin honetan, erraztasun handiagoz irakurtzen dute, eta gai dira beren burua zuzentzeko, zerbait oker irakurri dutela konturatzen badira. Lexiko zabalagoa dute, testu luzeagoak irakurtzen dituzte, eta ikasteko xedez ere irakurtzen dute. Ingurukoen irakurtzeko ohiturak imitatzen dituzte. Hori garrantzitsua da; izan ere, adin horretan hasten dira zenbait irakurle liburuak alde batera uzten.

Liburuak

Sail honetako liburuen orrialdeak abenturaz, umorez eta pertsonaia ekintzaile eta buruaskiz josita daude. Istorioak ekintza handikoak izan ohi dira, eta esaldiak konplexuagoak, baina paragrafoak laburrak dira oraindik ere.

Irakurleek abentura handiak biziko dituzte, ezin sine-tsizko munduetan murgilduko dira, algarak egingo dituzte, beldurra sentituko dute...

B



A zer azeria!

Roald Dahl

Haran bat, hiru baserri, hiru baserritar maltzur eta baso bat... Eta bertan, azeri azkar bezain ausart bat, hiru baserritar zitalen asmoak hankaz gora jarriko dituen behin eta berriz. Txilbor, Txikin eta Tximel zoratu egingo ditu azeri argiak. A zer azeria!

Liburu entretenigarri honetako azeriak argi frogatuko du zergatik duten azeriek animalia argien ospea...

Irudigilea: Quentin Blake

ISBN: 978-84-16839-03-2

Orrialde kopurua: 136

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Abentura, elkarbizitza, ekologia


B Berria



ROALD DAHL 

2016AN MENDEURRENA OSPATU GENUEN

B



Ako Trod

Roald Dahl

Bi maite zituen Hoppy jaunak bihotzean. Batetik, bere balkoiko loreak eta, bestetik, bere auzoko Silver andrea. Baina bigarren hori sekretua zen! Silver andrearen bihotzean bere dortoka Alfierentzat baino ez zegoen tokirik. Lortuko ote du Hoppy jaunak Silver andrearen bihotzean berarentzako lekua egitea?

Sar zaitez maitasun istorio bitxi bezain samur honetan eta gozatu Dahlen irudimenaz ehunka dortokaren laguntasunean.

Irudigilea: Quentin Blake


ISBN: 978-84-16839-38-4

Orrialde kopurua: 84

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Maitasuna, elkarbizitza, erantzukizuna

B Berria



Jira, Peli eta hirurok

Roald Dahl

Jira jirafak, Peli pelikanoak eta Tximi tximinoak lan talde bikaina osatzen dute. Gilen ere batu zaie, litxarrerria denda bat edukitzea amets duen haur mundiala. Laurek elkarrekin abentura harrigarriak biziko dituzte. Bidean, baina, duke-dukesa bitxiak eta «Sugoi» lapur beldurgarria topatuko dituzte.

Ez duzu gutxi gozatuko, Roald Dahlen eskutik, pertsonaia ezin originalago hauen komeriekin!

Irudigilea: Quentin Blake


ISBN: 978-84-16839-08-7

Orrialde kopurua: 92

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Laguntasuna, kultura aniztasuna, erantzukizuna

Saria: 2015ean Vitoria-Gasteiz Haur Literaturako itzulpenik onena

B

Martintxo Bigarrena

Antton Kazabon

Martintxo mutiko jatorra eta sentibera dugu. Zaletasun berezi bat ere badu Martintxok, baina hori ez dio edonori kontatuko. Sekretu hori bere lagunik onena den aitonari baino ez dio aitortuko. Aitonak konplizitatea agertuko dio, bai eta ametsak betetzeko bidea erakutsiko ere.

Belaunaldien arteko elkar ulertzean oinarritutako istorio ausarta.

Irudigilea: Aitziber Alonso

ISBN: 978-84-16839-43-8

Orrialde kopurua: 76

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Garapen pertsonala, erantzukizuna, beldurrak gainditzea

B Berria

B

Erraldoiek ez dute lagunik jaten

Unai Elorriaga

Garbiñek eta Mariñek berrehun urte baino gehiago dituzte. Hainbeste bizi ondoren, amonaxo xeibre hauek ederto dakite zer dagoen ondo eta zer dagoen txarto, eta ez diete kasurik egiten araei edota legeei. Egun batean, Sansonkules izeneko erraldoi izugarria ezagutzen dute eta bi atsoen bizimodua hankaz gora jarriko da.

Laguntasuna erraldoi bat bezain handia izan daitekeela erakusten duen kontakizun bihurria.

Irudigilea: Alex Orbe

ISBN: 978-84-16839-20-9

Orrialde kopurua: 80

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Laguntasuna, adiskidetasuna, elkarbizitza, umorea, integrazioa

B Berria



Leireren opor miresgarriak

Agurtzane Ortiz de Landaluze

Mitologia-lehiaketa bat irabazi ondoren, bi familia euskaldunek Euskal Herrian zehar txango bat egiteko aukera lortu dute. Bidaian, zazpi lurraldeak bisitatzeko eta euskal izaki mitologikoak eta beren istorioak ezagutzeko parada izango dute. Leireren oporrak benetan miresgarriak izango dira!

Euskal lurraldeetako mitologiaren magiak liluratuko zaitu liburu atsegin honetan.

Irudigilea: Leire Salaberria

ISBN: 978-84-16839-01-8

Orrialde kopurua: 120

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Mitologia, fantasia, abentura, ondasun kulturala



Katxin

Antton Irusta

Katxin hamar urteko mutiko zintzoa da eta gustura bizi da bere aitonarekin mendialdeko baserri batean. Aitonak kontatzen dizkion istorioei esker, oso mutil jakintsua bilakatu da Katxin, eta bere jakinduria erakusteko aukera izango du eskolako lagun berrien aurrean.

Katxinen kontu xelebreen bitartez basoa eta bertako animaliak maitatzeko aukera izango duzu!

Irudigilea: Enrique Morente

ISBN: 978-84-16839-00-1

Orrialde kopurua: 136

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Mitologia, fantasia, adiskidetasuna, ahozkotatuna



Haur Literatura

Irakurle independentea

Adin honetako irakurleak badaki irakurtzen, baina ez bakarrik isilpean, irakurritakoa ulertuz; irakurketa beste helburu batzuetarako erabiltzeko gai ere bada, eza gutzen ez dituen hitzak iker ditzake, eta irakurtzeko erritmoa eta estrategiak doitu ditzake, aurrean zer testu duen kontuan hartuta. Gai da testu luzeagoak eta, egiturari dagokionez, sofistikatuagoak irakurtzeko, bai eta korapiloa irudien laguntzarik gabe irudikatzeko ere. Era berean, gai da testuek dituzten sotiltasun batzuk identifikatzeko, bai eta haiei jarraitzeko ere.

Ezagunak ez zaizkion gaiei, pertsonaiei eta lekuei buruz irakurtzen du, eta gai sozialei eta kulturei buruzko interes berezia garatzen ere hasten da. Horri esker, lehen bere eskuetatik kanpo gelditzen zen material ugari eskura du orain.

Liburuak

Intrigaz, pertsonaia bitxiz, hazkuntza-esperientziaz eta, aldi berean, umore ugariz betetako istorioak kontatzen dituzte. Liburu zirraragarriak dira, irakurle asko lorik egin gabe utziko dutenak.



Hatz miragarria

Roald Dahl

Zortzi urteko neskato batek dohain berezia du: eskuineko eskuan duen hatz miragarriaz gogoko ez dituen gauzak eta jendea zigor ditzake, haien itxura aldatuz. Hori dela eta, egun batean, ehiza krudelean sarriegi aritzen diren auzoko batzuk bere hatz miragarriaz seinatu eta...

Natura eta animaliak maitatzen ikasiko duzu Roald Dahlen istorio miragarri honekin!

Irudigilea: Quentin Blake

ISBN: 978-84-16839-16-2

Orrialde kopurua: 80

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Ekologia, begirunea, elkarbizitza



Errima errebeldeak

Roald Dahl

Liburu honetan Roald Dahlek errima konplize hartuko du sei ipuin klasiko ezaguni buelta emateko: Edurne Zuri auto-stopez ibiliko zaigu, hiru txerritxoek laguntza eskatuko diote Txanogorritxori... Eta otsoa? Otsoak gorritxoak ikusiko ditu. Bai horixe!

Maitagarrien betiko ipuinez nazkatuta bazaude, hauxe da zure liburua!

Irudigilea: Quentin Blake

ISBN: 978-84-16839-14-8

Orrialde kopurua: 64

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Umorea, ahozkotasuna

ROALD DAHL

2016AN MENDEURRENA OSPATU GENUEN



Ditxosoazko ditxolaria

Joseba Santxo

Mikel Martinez hamabi urteko gaztetxoa da eta hitzak errimatzeko joera handia du. Liburu honetan zehar, hainbat abentura biziko du Mikelek. Beraz, presta zaitez mutil bizi bezain sentibera honen larruan sartu eta mundua bere begietatik ikusteko.

Ez zara aspertuko hitza jolas eta laguntasuna bizilege dituen mutiko honen abenturak irakurriz!


Irudigilea: Iñigo Ordozgoiti

ISBN: 978-84-16839-11-7

Orrialde kopurua: 176

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Maitasuna, adiskidetasuna, ahazkotasuna



Inari, Laponiako lore

Joseba Ossa

Inari Laponiako leku lasai eta baketsu batean bizi da, amona, guraso eta neba-arrebekin, elur-oreinekin eta naturarekin bat eginik. Alabaina, Inari eta bere senideak ez daude arrisku guztietatik salbu: zibilizazio modernoa hurbiltzen eta aztarnak uzten hasi da...

Zuritasun beteko inguruek eta tradizioaren magiak erraz murgilduko gaituzte kontakizun samur honetan.

Irudigilea: Maite Gurrutxaga

ISBN: 978-84-16839-10-0

Orrialde kopurua: 160

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Ekologia, familia, begirunea

B



Seme maitea: greban gaude

Jordi Sierra i Fabra

Unaik ez du etxean inoiz laguntzen, eskergabekoa da eta nota txarrekin amaitu du urtea. Mutikoak gurasoen errieta izugarria espero du, baina haiek, aldiz, jaramonik ere ez diote egin. Unai harrituta dago. Zer gertatu zaie gurasoei? Estralurtarrak ote dira?

Adi ibili! Zure gurasoak izan daitezke greba egiten hurrengoak!

Irudigilea: Ximena Maier

ISBN: 978-84-16839-46-9

Orrialde kopurua: 160

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Erantzukizuna, garapen pertsonala, begirunea, familia

B Berria



Belle, Landetako sirena

Mikel Garmendia

Koldo eta Itziar Landetara joango dira gurasoekin. Opor laburrak izango dira, ikasturtean zehar ez baitira oso fin ibili eta kalabaza bat edo beste ere ekarri baitute etxera. Landetan Belle ezagutuko dute. Bellek kontatuko dizkien istorio eta sekretuek zeharo aldatuko dute gure bi laguntxoek bizitza.

Kontakizun honen irakurketa biziak literatura bizitzeko grina sortuko dizu!


Irudigilea: Mikel Valverde

ISBN: 978-84-16839-12-4

Orrialde kopurua: 132

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Mitologia, fantasia, abentura, laguntasuna



Harresi Handirantz

Jon Arretxe

Rama hamahiru urteko mutila da eta Indiako Ozeanoko Sri Lanka uhartean bizi da. Ramaren familia txiroa da, eta mutilari barre egiten diote eskolan haren ezjakintasunagatik. Halabeharrek, ordea, pobreziatik eta ezjakintasunetik irteteko aukera emango dio Ramari. Baina ez da bide samurra izango...

Zirrara berriak, egoera larriak, pertsona harrigarriak... Lagundu Ramari bidaia liluragarri honetan!


Irudigilea: Kristina Fernandez

ISBN: 978-84-16839-09-4

Orrialde kopurua: 224

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Abentura, garapen pertsonala, beldurrak gainditzea, begirunea





Haur eta Gazte Literatura

Gogoeta egiten duen irakurlea

Nerabezaroan murgildutako irakurleek irakurtzeko zenbait gaitasun finkatzen dituzte. Hala ere, etapa honetan, irakurtzen dutenaren inguruko ikuskera objektibo bat transmititzeko gai izateaz gain, irakurritakoari buruzko iritzi pertsonala sortzen eta hura justifikatzen duten argudioak aurkitzen hasten dira, eta horixe da etapa honetan zoragarriena.

Une honetatik aurrerako irakurgaiak ez dira izango denbora-pasa hutsa; munduan, eta ez liburuan bakarrik, gertatzen denari buruz gogoeta egiteko eta jarrera bat hartzeko baliagarriak ere izango zaizkie.

Liburuak

Liburuek bidegabekeria sozialei, gerrei eta moralki konplexuak diren egoerei buruz hitz egiten dute. Garatzeko eta inguruan duten guztia esperimintatzeko gose dira nerabeak, eta horregatik dira ohikoak gai horiek. Liburuek mundura irteteko nahi hori ase eta ulertu behar dute, fantasiako unibertsoetan barrena nabigatu ahal izateko nahi hori; horregatik, irakurgai erronkazaleak eskaintzen ditugu, irakurlea aisialdian literaturara itzularaziko dutenak.



Jara

Jasone Osoro

Jarak 13 urte ditu eta emakume bihurtzen hasia da. Horrek egoera berriak bizitzera eramango du: gurasoekin haserreak, errebeldia, pozak eta tristurak... Baina, batik bat, gertaera baten inguruan oinarrituko da bere unibertsoa: estreinako musua.

Nerabezaroaren gazi-gozaok deskubritzera gonbidatzen zaituen kontakizun bizia.

Azaleko irudia: Alex Macho

ISBN: 978-84-16839-19-3

Orrialde kopurua: 176

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Errealitatea, maitasuna, laguntasuna, garapen pertsonala, familia



Jara

bikiak eta bikoteak

Jasone Osoro

Estreinako musuaren ostean, Jararen sentimenduak nahasirik daude. Horrez gain, lagun berriak iritsi dira herrira: Nora eta Xabat. Jara eta Ihintza arerio bihurtuko dira maitasun kontuetan. Ikastetxean moztorro festa antolatu da eta sorpresak egongo dira. Eta ez nolanahikoak!

Zalantzak, maiteminak, zeloak... gaztetasuna pil-pilean Jararen abentura berrian.

Azaleko irudia: Alex Macho

ISBN: 978-84-16839-24-7

Orrialde kopurua: 160

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Errealitatea, maitasuna, laguntasuna, garapen pertsonala, familia



Jara

Bartzelonan

Jasone Osoro

Jara Bartzelonara joan zaigu, eta makina bat bizipen berri izango ditu: looka aldatuko du, lagun berri eta interesgarriak egingo ditu... Heldu sentitu nahi du gure neskak, bizitzaz gozatu; baina horrek ondorioak izango ditu...

Jararen mundu berria ezagutuko duzu kontakizun kilikagarri honetan!

Azaleko irudia: Alex Macho

ISBN: 978-84-16839-26-1

Orrialde kopurua: 176

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Errealitatea, maitasuna, laguntasuna, garapen pertsonala, familia



Bihotz ausarta

Joanes Urkixo

Urtzik hamalau urte ditu eta bizitza ez zaio oso atsegina iruditzen. Aitaren errietak eguneroko ohitura bihurtu dira, azterketetan ustelak ateratzen hasi da... eta hori gutxi balitz, munduko neskarik zoragarrienaz maiteminduta dago, baina hark ez dio jaramonik egiten...

Etsipena eta itxaropena aurrez aurre egongo dira Urtziren bihotz ausartan.


Azaleko irudia: Mikel Casal

ISBN: 978-84-16839-17-9

Orrialde kopurua: 196

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Maitasuna, beldurrak gainditzea, garapen pertsonala, familia, laguntasuna



Heriotza harrigarria

Toti Martínez de Lezea

Aurtengo udan, Ikerrek errekupeazio baterako ikasi behar du. Horregatik, priore-etxe lasai batera eramaten dute gurasoek. Zoritxarrez, bertan azterketa gaintitu ez zion irakaslea dago. Oso deseroso eta aspertuta dago Iker, baina bat-bateko hileta misterioitsu batek egoera guztiz aldatuko du.

Priore-etxean murgildu eta lagun ezazu Iker misterioak argitzen!


Azaleko irudia: Mikel Casal

ISBN: 978-84-16839-25-4

Orrialde kopurua: 268

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Adiskidetasuna, misterioa, erantzukizuna



H gabe

Sustrai Colina

Nola jokatu mundu guztiak ikastetxeko hormarik zurienean agertu den pintadaren egiletzat zauzkanean? Galdetu Manu, Xabi eta Joxemariri. Agian ez dizute erantzun argirik emango, baina izugarri poztuko dira. Izan ere, azkenaldian ez die inork kasu handirik egiten...

Ikaskideen onarpena biziki desiratzen duen kuadrilla baten gorabeherak.

Irudigilea: Jokin Mitxelena

ISBN: 978-84-16839-23-0

Orrialde kopurua: 120

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Adiskidetasuna, umorea, integrazioa



Eguzkiloare

Antton Kazabon

Behinola, erromatarrek Oiartzoko meatzeetan burdina ateratzen zuten, baina Trumoi, euskaldun gaztea, ez zen haien laguna. Batez ere, Klaudio erromatar gaztea gorrotatzen zuen, biek maitatzen baitzuten neska euskaldun bera: Eguzkiloare. Noraino iritsiko ote dira Eguzkiloareren maitasuna lortzeko?

Maite kuttun bera duten bi bihotzen arteko liskarrak aurkituko dituzu istorio trumoisu honetan.


Irudigilea: Jesús Sotes

ISBN: 978-84-16839-21-6

Orrialde kopurua: 152

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Maitasuna, elkarbizitza, mitologia



Matilda

Roald Dahl

Matildak bost urte ditu eta dagoeneko irakurle amorratua da. Matilda oso neskato argia eta miretsia da. Bere guraso petralek, ordea, beti bazterrak nahasten dabilela uste dute. Gainera, Matildak ahalmen bereziak ditu, eskolako zuzendari gogaikarriaren aurka egiten lagunduko diotenak.

Haurren heldutasuna eta helduen umekeriak kontraste bortitzean agertzen dituen maisulana duzu liburu hau.

Irudigilea: Quentin Blake

ISBN: 978-84-16839-22-3

Orrialde kopurua: 304

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Garapen pertsonala, erantzukizuna, adiskidetasuna, irudimena



ROALD DAHL

2016AN MENDEURRENA OSPATU GENUEN



Gazte Literatura

Bila dabilen irakurlea

Irakurle gazteak bakan egiten dituen horren bila dabilta etengabe, bai eta independentzia eta erantzukizun handiagoa hartzeko prestatuko dituen horren bila ere; horrek bereizten ditu. Beren interesei eta kezkei erantzuten dieten testuak bilatzen dituzte, intelektualki nahiz emozionalki erronka jotzen dietenak, bai eta garatu dituzten abileziak sustatzen dituztenak ere.

Liburuak

Irakurle horiei zuzendutako liburuek funtsezko bi alderdi zaindu behar dituzte: formaren dibertsitatea eta edukien kalitatea. Horrek isla du istorioen konplexutasunean, erabilitako lexiko zabalean, figura erretorikoen zorrotasunean eta testuen xedean.

Sail honetan, ohiko genero eta gaiez gain irakurketa errazeko azpisail bat ere gehitu dugu (Esan aise), eta atal horri hasiera emateko, Andrés Guerreroren *Maitasuna zailegia da* liburu ederra argitaratu dugu.

B



Maitasuna sentitzen eta maitasunean pentsatzen duten guztientzako eleberri aproposa.

Maitasuna zailegia da

Andrés Guerrero

Maitasunak jotzen gaituenean apurtu egiten gaitu. Loia lapurtzen digu. Baina, ordainetan, munduko bizipozik handiena ematen digu. Mugagabeko itzaropenez eta indarrez betetzen gaitu. Halakoxe erraza da. Eta halakoxe zaila. Batzuetan, zailegia. Eta hortixek sortu dira maitasun kontu hauek. Maitasun kantu xume hauek.



Europako IE zigilua daraman lehen eleberria. Haren ulermen- eta balioztatze-prozesuan oso kolektibo zabalak hartu du parte: nerabeek, desgaitasuna dute pertsonak, etorkinek, pertsona nagusiek eta buruko nahasmenak dituzten pertsonak, besteak beste.


ISBN: 978-84-16839-31-5


Orrialde kopurua: 152

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Aniztasunaren trataera, maitasuna, garapen pertsonala

B Berria



**ESAN AISE**

Esan aise sailaren helburu nagusia irakurketa inklusiboa sustatzea da, komunikazioari eta irakurle berrien parte hartzeari bide emanez.



Irakurketa erraza irakurmen edota ulermen zailtasunak dituzten pertsonen testuak, ikus-entzunezkoak eta multimedia materiala eskaintzeko formatua da.





Jara live

Jasone Osoro

Aurreko ikasturteko nota txarrak direla eta, aurtengo udan, Jara zigortuta geratu da Bartzelonan. Hala ere, Lekeition izango den Gazte kanpaldira gonbidatuko du Ihintzak eta gurasoek baimena emango diote. Bertan, musika eta gitarra akordeen artean zalantza loratuko da berriz ere Jararen bihotzean: zein da benetan maite duen mutila?

Jararen munduan sartzen bazara, nekez irtengo zara bertatik haren hurrengo abentura irakurtzeko irrika bizia sentitu gabe. Hain da erakargarria nerabeen mundu gorabeheratsua!


ISBN: 978-84-16839-33-9

Orrialde kopurua: 108

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Maitasuna, adiskidetasuna, garapen pertsonala, erantzukizuna





Errebeldeak

S. E. Hinton

Ponyboy mutil gaztea New Yorkeko auzune batean bizi da. Dena kontrolpean duela uste du berak eta haren banda kideen eta benetako lagunaren babesa ere badu. Baina, gau batean, beste banda batekin izandako borroka latz baten ondorioz, Ponyboyren bizitza kolokan jarriko da...

Gazteen delinkuentzia beldurrik gabe JORRATZEN duen eleberri hunkigarria!

Auzo txiroetako gazteen bizi-nahia erakusten duen kontakizun ahaztezina!

ISBN: 978-84-16839-29-2

Orrialde kopurua: 232

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Kritika soziala, laguntasuna, elkarbizitza, adiskidetasuna, errealitatea



Margolana

Igor Elortza

Institutu batean edozer gerta liteke. Gerta liteke margolan baliotsu bat aurkitzea. Ager litezke bi gazte bazterrak nahasi nahian eta baita eskolazain ilun eta beldurgarri bat ere. Horri gehitzen badiogu elurrak geldiarazitako herria, maitasuna, komikia, Louvre museoa eta Interpola, korapilo ia aska ezina izango dugu. Izan ere, institutu batean edozer gerta liteke...

Hona hemen artearen lilurak mugarik ez daukala erakusten duen intrigazko istorio erakargarria. Irakurtzen hasi bezain laster kontakizun bizi honen atzaparretan eroriko zara!

ISBN: 978-84-16839-27-8

Orrialde kopurua: 124

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Misterioa, arte hezkuntza, adiskidetasuna, erantzukizuna, zuzentasuna



Lurraren taupadak

Jon Arretxe

Aturi Amazoniako Mukaxi tribuko oihandarra da. Bere ahotik entzungo dugu, zehaztasunez eta sentimenduz, bere familiaren, bere tribuaren eta bere inguruaren berri, mitologiatik abiatu eta gaur-gaurkoak diren arazoetaraino, ekintzaz beteriko ibilbidea egingo dugu Aturiren eskutik. Bizinahia, heriotza, maitasuna... eta beste hainbat gertakari eta sentipen tartekatuko dira oihanaren bihotzetik mintzo zaigun mukaxitarren elean.

Lurraren erraietatik datorren aldarriak bihotza taupadaka jarriko digu ekintza beste sentimendu dituen kontakizun zirraragarri honetan.

ISBN: 978-84-16839-34-6

Orrialde kopurua: 100

Generoa: Kontakizuna

Gaia: Ekologia, begirunea, elkarbizitza



Bidaia literarioak begiko

Irakurmena lantzeko programa

«Mundua liburu bat da, eta bidaiatzen ez dutenek orrialde bat baino ez dute irakurtzen».

SAN AGUSTIN


Liburu bat irekitzen dugun aldiro, bidaia bati ekiten diogu. Gudan ezezagunak zaizkigun lekuetara garamatzaten bideei, baina, hala ere, identifikatutako ikusiko dugu geure burua. Bide horietan, hunkitu egingo gara, matxinatu, identifikatu, eta konpromisoa ere hartuko dugu. Orrialde hauetan aurkituko dituzun bideak. Zer helmuga aukeratuko duzun, oso leku desberdinetara iritsiko zara ikasleekin; izan ere, ikasleak beraiek ere oso desberdinak dira. Bidaia ugari eta mota askotakoak dituzu zain, eskualde horietan barrena bidaiatzera ausartuko direnek baino biziko eta osatuko ez dituztenak.

Eta bidaiari orok iparrorratz bat behar duenez, orrialde hauek eskaintzen dizkizugu orientabide gisa. Zure ikasleak esploratzaileak dira, eta zu, literaturaren munduan behar duten gida; bagajetzat ibilbide bakoitzeko izenburuak baino ez hartu, eta abenturak bizitzeko behar dutena. Izan ere, bidaia bati ekiten dion oro ez da inoiz atzera abiapuntura iristen: ezinezkoa baita ibiltzea ezer aurkitu gabe; aurrera egitea, izan gabe; irakurtzea, geure burua eraldatu gabe. Hortaz, aingurak jaso eta bidaiari ekin baino lehen, jakinarazi ikasleei itzultzean ez direla berriz oraingoak izango, betiko aldatuko direla.

1. Bidai hunkigarria: gure sentimenduak iparrorratz izango dira.




2. Bide beteko bidaia: norberaren mugak zabalduko dituen esperientzia.



3. Bidaia soziala: geure buruaren eta egungo gizartearen gazi-gozoak ezagutzeko bidaia exotikoa.




4. Intrigaz beteriko bidaia: sekretuz eta suspentsez beteriko bidaia.



5. Laguntasunaren bidaia: adiskidetasunaren balioaz jabetzeko garraibidea.




6. Ahozkotasuna lantzeko bidaia: hitz-jokoz, kantaz, ipuinez eta errimaz jositako ibilbidea.



7. Bidaia artistikoa: artea eta haren sekretuak ezagutzeko igarobidea.



8. Bidaia ekologikoa: natura maitatzen ikasteko ibilaldia.





Webgunea eta sare sozialak

www.begiko.com webgunean, katalogo osoa aurkituko duzu. Horrez gain, irakasleei eta familiei zuzendutako baliabide digital ugari eta mota askotakoak ere eskainiko dizkizugu.

Irakasleen eremua:

- **Irakurmen-trebetasunak** PIRLS eta PISA proben esparruan.
- **Irakurketa-ibilbideak.** Hautatutako liburuetan barrera bidaiatzeko proposamenak eta liburu horien gidak.
- **Liburu guztien irakurmen-testa.** Erantzunak ditzute.
- **Jardunbide egokiak.** Irakurketa-esperientziak ikusarazteko eremua.

Familien eremua:

Gomendioak, literatura-jarduerak, egun berezietarako proposamenak... Familiei seme-alabek irakurtzeko ohitura onak har ditzaten laguntzeko prozedura egokien bilduma.

Era berean, Begikok etengabeko harremana sustatuko du irakurleekin, **sare sozialei** esker.

Gaiak eta balioak

Gaiak eta balioak



SAIL BERDEA

	Abentura	Adiskidetasuna	Ahokotasuna	Aniztasunaren traidera	Arte hezkuntza	Bakea	Begirunea	Beldurrak gainditzea	Ekologia	Elkarbizitza	Elkartasuna	Erantzukizuna
Pello eta otsoa						✓			✓	✓		
Umi	✓								✓			
Tartalo izan nahi zuen laukia					✓							
Pirata izan nahi zuen orbana		✓			✓							
Jainkosa izan nahi zuen laukia	✓				✓							
Eurigilea									✓		✓	
Ipuin hautatuak										✓		

SAIL HORIA

Leiho bat eta leiho bi		✓					✓			✓		✓
Liburuzaina eta gaizkileak	✓	✓								✓		
Kutxa bete dinosauro	✓	✓					✓					

SAIL MOREA

Leireren opor miresgarriak	✓											
Katxin		✓	✓									
A zer azeria!	✓								✓	✓		
Jira, Peli eta hirurok												✓
Ako Trod										✓		✓
Martintxo Bigarrena								✓				✓
Erraldoiek ez dute lagunik jaten		✓								✓		

SAIL LARANJA

Harresi Handirantz	✓						✓	✓				
Ditxosozko ditxolaria		✓	✓									
Inari, Laponiako lore							✓		✓			
Belle, Landetako sirena	✓											
Errima errebeldeak			✓									
Hatz miragarria							✓		✓	✓		
Seme maitea: greban gaude							✓					✓

Gaiak eta balioak



SAIL URDINA


	Abentura	Adiskidetasuna	Ahozkoetasuna	Aniztasunaren tratuera	Arte hezkuntza	Bakea	Begirunea	Beldurrak gainditzea	Ekologia	Elkarbizitza	Elkartasuna	Erantzukizuna
Jara		✓										
Jara bikiak eta bikoteak		✓										
Jara Bartzelonan		✓										
Bihotz ausarta								✓				
Matilda		✓										✓
Heriotza harrigarria		✓										✓
H gabe		✓										
Eguzkilore										✓		

GAZTE SAILA

Jara <i>live</i>		✓										✓
Margolana		✓			✓							✓
Lurraren taupadak							✓		✓	✓		
Errebeldeak		✓								✓		

IRAKURKETA ERRAZA

Maitasuna zailegia da				✓								
-----------------------	--	--	--	---	--	--	--	--	--	--	--	--



Errealitatea	Familia	Fantasia	Garapen pertsonala	Integrazioa	Irudimena	Kritika soziala	Kultur aniztasuna	Laguntasuna	Maitasuna	Misterioa	Mitologia	Ohitura osasungarriak	Ondasun kulturala	Umorea	Zuzentasuna
✓	✓		✓					✓	✓						
✓	✓		✓					✓	✓						
✓	✓		✓					✓	✓						
	✓		✓					✓	✓						
	✓		✓		✓										
				✓						✓				✓	
									✓		✓				

			✓						✓						
										✓					✓
✓						✓		✓							

✓			✓			✓			✓						
---	--	--	---	--	--	---	--	--	---	--	--	--	--	--	--



Hemen gaituzue

SALMENTA ARLOA

Bizkaia

Legizamon poligonoa
Gipuzkoa kalea, 31, 1, ezk.
48450 Etxebarri
Tel.: 94 426 90 22
Faxa: 94 440 52 14
E-posta: ybernaola@santillana.com

Gipuzkoa

Elorrondo, 3, behe
20180 Oiartzun
Tel.: 943 26 11 84
Faxa: 943 26 07 99
E-posta: fjeskudero@santillana.com

Nafarroa

Urzainki, 21, behe
31014 Iruñea
Tel.: 948 13 23 11
Faxa: 948 12 50 42
E-posta: ejsimon@santillana.com

ARGITALPEN ARLOA

Legizamon Legizamon
Gipuzkoa kalea, 31, 1, esk.
48450 Etxebarri
Tel.: 94 426 90 72
Faxa: 94 440 64 90
E-posta: zubia@santillana.com

